- c) Hipoteka (aldeek aitortu dutenez eragiketa honen bermeen funtsezko elementua) erregistratutakoan egiaztatzen bada hipoteka baino erregistro-maila handiagoa duen edo hipoteka eraginik gabe uzten duen erregistro, zama edo eskubideren bat dagoela eta, ondorioz, hitzarturiko hipoteka-bermea hitzemandakoa baino erregistro-egoera txarragoan geratzen dela, eta agiri hau sinatzeko unean karga berri horiek erregistratu gabe badaude edo zamak lehentasun-maila hartzen badu, hemen berme gisa ekarritako hipoteka erregistratu ostean.

Ez da aplikatuko hitzarmena:

 1. Zama tasa edo zergen ondoriozkoa bada.
 2. Alderdi mailegu-hartzaileak eta/edo hipotekatzaileak ordezkatutako hipotekaren ordez berme osagarriak aurkezten dituztenean, betiere berme horiek honako hiru eskakizun hauek betetzen badituzte:
 - 2.1) Horiek ere izaera errealekoak izango dira.
 - 2.2) Hipotekak xede duen finakaren balio garbi bera edo handiagoa izango dute.
 - 2.3.) Hipoteka horrekin hitzemandako erregistro-maila bera izango dute.
- d) Suteen aurkako, primak mugaeguneratzean kitatzen ez badira, edo hipotekatu den finakari dagozkion kontribuzio, zerga eta arielak, eta mailegu honen tronkoak nahiz bere interesek sortzen dituztenak, ordaintzeko borondatezko epean kitatzen ez badira.
- e) Zuzenbideak mugaeguna aurreratzeko ezartzen duen edozein arrazoi suertatzen bada.

ZAZPI: KONTUEN KONPENTSAZIOA

Kontratu honen titularrak baimena eman dio espresuki LABORAL KUTXARI, erakunde horretan (kontu korrontean, aurrezki-libretan edota bestelako modalitate batean) bere izenean duen kopurutik maileguaren mugaeguneraturiko eta ordaindu gabeko zenbatekoak atxikitzeko eta konpentsatzeko, gorabehera hori gertatzen bada, barne harturik gordailuak aurrez ezereztea.

Estipulazio honetan ezarritako konpentsazio-eskubidearen barruan sartzen da, halaber, LABORAL KUTXAren beste ahalmen hau ere: alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK edo FIDATZAILEAK/ek LABORAL KUTXAn gordailututa du(t)en edozein tituluz edo kontuko idatzoharrez ordezkatutako baloreak saltzea, eta salmentatik lortutako zenbatekoa mailegu honetan mugaeguneratuta eta ordaindu gabe dauden kopuruak ordaintzeko erabiltzea. Era berean, LABORAL KUTXAK ahalmena izango du, alderdi MAILEGU-HARTZAILEAREN edo FIDATZAILEAREN/en edozein finantza-aktibo (tituluak, eskubideak, kontuko idatzoharrak eta abar) saldu edo itzultzeko, LABORAL KUTXAN gordailututa badaude edo horrek kudeatzen baditu.

Estipulazio honen eraginpean daude, berariaz, gaur egun edo etorkizunean alderdi MAILEGU-HARTZAILEA edo FIDATZAILEA/k titular ditu(z)t)en inbertsio-fondoetako partaidetzak, Caja Laboral Gestión SGIIC SAK kudeatutakoak. Agiri honek partaidetzak itzultzeko agindu ezeztazinenaren legezko balioa du, eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK edo FIDATZAILEAK/ek horretarako berariazko eta legezko baimena eman diote LABORAL KUTXARI.

Partaidetzen likidazio-balioa izango da horien prezioa, alegia Bilboko Balore Burtsaren Kotizazioaren Buletin Ofizialean argitaratzen dena eta dagokion inbertsio-fondoaren erregelamenduan eta xedapen aplikagarrietan xedatutakoaren arabera finkatzen dena.

ZAZPI BIS: FIDANTZAMENDUAK

A AUKERA: IZAERA SOLIDARIOKO FIDANTZA

Kontratu honetan finkatu den hipoteka-bermeaz gain eta hari kalterik eragin gabe, FIDATZAILEEK LABORAL KUTXAri bermatzen diote, pertsonalki eta alderdi MAILEGU HARTZAILEAREKIN era solidarioan, eta elkarren artean era solidarioan, mailegu-kontratu honen arabera MAILEGU HARTZAILEAK bereganatu dituen betebeharrak bete egingo direla. Izaera solidario horren ondorioz, gainera, berariaz uko egiten diete ordena-, eskusio- eta banaketa-onurei.

Uko egite horrek zera dakar: hasiera batean beren izaerari dagozkion onurak galduko dituztela FIDATZAILEEK. Gauzak horrela, alderdi MAILEGU HARTZAILEAK bere betebeharrak betetzen ez baditu, uko egiten diote lehenengo zordun nagusiari eta gero FIDATZAILEEI erreklamatzeari (ordenaren onura); zordun nagusiaren ondasun guztiak gauzatu arte FIDATZAILEEI ezin erreklamatzeari (eskusio-onura); eta, azkenik, FIDATZAILE bat baino gehiago egonez gero, zorra guztien artean banatzeari eta bakoitzari dagokion zatia eskatzeari. Izan ere, azken onura horri uko eginda, zor osoa edota zorraren zati bat FIDATZAILE batzuei eskatzeko eta besteak salbuesteko aukera egongo da, edota beharbada guztiei ez zaie zorraren zati berdina exijituko (banaketa-onura).

Hemendik aurrera eta ondorio guztietarako, FIDATZAILEEK onartu egiten dituzte LABORAL KUTXAren eta alderdi MAILEGU HARTZAILEAren artean adostuta, etorkizunean LABORAL KUTXAK alderdi mailegu-hartzaileari aitortu diezazkiokeen luzamendu eta ordainketa-erraztasun guztiak, bai eta, oro har, tresna honetan formalizatuko den eragiketaren gainean bi alderdiok hitzartu ditzaketen gainerako baldintza guztiak ere, betiere maileguaren zenbatekoa edo interes-tasa, komisioak eta berandutze-komisioak handitzea ez badakarte, edota maileguaren azken muga-eguna aldatzea ez badakarte.

Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA, fidatzaileetako bat edo bermetarako eskubide errealek eratu dituen hartzekodunen konkurtsoan badago, hartzekodunen hitzarmena onesteak ez ditu mugatuko konkurtsopean ez dauden obligaziodunen eta fidatzaileen aurrean LABORAL KUTXAK dituen eskubideak, nahiz eta LABORAL KUTXAren atxikimendua edo aldeko botoa izan, edukia edozein delarik ere (kitak eta itxarroteak barne). Konkurtsopean ez dauden obligaziodunek eta fidatzaileek onartu egin dute, berariaz, atxikimendua edo aldeko boto hori, eta ezingo dituzte argudiatu ez hitzarmenaren onespina ez horren eraginak, LABORAL KUTXAren kaltetan.

FIDATZAILEEK edo benetako berme-eskubideak eratu dituen orok, ezin izango dute ordainketako auzibidetik kanpoko edo birfinantzaketa-akordioen onarpenean oinarritutako argudiorik eman LABORAL KUTXAren kaltetan, nahiz eta LABORAL KUTXAren beraren atxikimendua edo aldeko botoa izan eta haren edukia edozein izanik ere, kitatzeak eta/edo itxaronaldiak barne.

FIDATZAILEek baimena ematen diote, espresuki, LABORAL KUTXAri, erakunde horretan (kontu korrantean, aurrezki-libretan nahiz bestelako edozein modalitatetan) aipaturiko FIDATZAILEen izenean dauden kopuruetatik mailegu honetan mugaeguneraturiko eta ordaindu gabeko zenbatekoak atxikitzeko eta konpentsatzeko, gorabehera hori gertatzen bada.

FIDATZAILEEK LABORAL KUTXAren edozein bulegotan ordaindu beharko dituzte bermatutako betebeharrak, erakunde horrek lehen eskaera egiten dien unean bertan, ordainketa-eskaera egokia edo desegokia den aztertzen hasi gabe.

Eragiketaren muga-egun normala edo aurreratua gertatu ondoren, eta LABORAL KUTXAK FIDATZAILEen aurka egitea erabakitzen badu, FIDATZAILEek adierazten dute errekerimendua edo jakinarazpenak helarazteko helbidea agerraldian adierazitako helbidea bera dela.

LABORAL KUTXAK ez du FIDATZAILEARI/EI ohartarazpenik bidaltzeko betebeharrak izango, zordunek edo gainerako FIDATZAILEek ordaintzeko betebeharrak huts egiten badute.

Hemen aurkezten den fidantzamenduak indarrean iraungo du harik eta berak bermatzen dituen betebeharrak guztiak, kontratu honetan jasota daudenak edota kontratua berritzeko edo ordeztzeko kontratuetan jasoko direnak, guztiz amaitu arte.

FIDATZAILEetako edozein "KREDITU ERAKUNDEAK MAILEGUA AURRETIK SUNTSITZEA" klausularen A) letran ezartzen den zirkunstantziaren batean eroriz gero, LABORAL KUTXAK mailegua aurretik deuseztatzeko ahalmena izango du

B AUKERA: IZAERA SOLIDARIOKO ETA IRAUPEN MUGATUKO FIDANTZA

Kontratu honetan finkatu den hipoteka-bermeaz gain eta hari kalterik eragin gabe, FIDATZAILEEK LABORAL KUTXAri bermatzen diote, pertsonalki eta alderdi MAILEGU HARTZAILEAREKIN era solidarioan, eta elkarren artean era solidarioan, mailegu-kontratu honen arabera MAILEGU HARTZAILEAK bereganatu dituen betebeharrak bete egingo direla. Izaera solidario horren ondorioz, gainera, berariaz uko egiten diete ordena-, eskusio- eta banaketa-onurei.

Uko egite horrek zera dakar: hasiera batean beren izaerari dagozkion onurak galduko dituztela FIDATZAILEEK. Gauzak horrela, alderdi MAILEGU HARTZAILEAK bere betebeharrak betetzen ez baditu, uko egiten diote lehenengo zordun nagusiari eta gero FIDATZAILEEI erreklamatzeari (ordenaren onura); zordun nagusiaren ondasun guztiak gauzatu arte FIDATZAILEEI ezin erreklamatzeari (eskusio-onura); eta, azkenik, FIDATZAILE bat baino gehiago egonez gero, zorra guztien artean banatzeari eta bakoitzari dagokion zatia eskatzeari. Izan ere, azken onura horri uko eginda, zor osoa edota zorraren zati bat FIDATZAILE batzuei eskatzeko eta besteak salbuesteko aukera egongo da, edota beharbada guztiei ez zaie zorraren zati berdina exijituko (banaketa-onura).

Hemendik aurrera eta ondorio guztietarako, FIDATZAILEEK onartu egiten dituzte LABORAL KUTXAren eta alderdi MAILEGU HARTZAILEAren artean adostuta, etorkizunean LABORAL KUTXAK alderdi mailegu-hartzaileari aitortu diezazkiokeen luzamendu eta ordainketa-erraztasun guztiak, bai eta, oro har, tresna honetan formalizatuko den eragiketaren gainean bi alderdiok hitzartu ditzaketen gainerako baldintza guztiak

ere, betiere maileguaren zenbatekoa edo interes-tasak (arruntak nahiz berandutzeagatikoak) eta komisioak handitzea ez badakarte, edota maileguaren azken muga-eguna aldatzea ez badakarte.

Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA, fidatzaileetako bat edo bermetarako eskubide erreala eratu dituen hartzekodunen konkurtsuan badago, hartzekodunen hitzarmena onesteak ez ditu mugatuko konkurtsupean ez dauden obligaziodunen eta fidatzaileen aurrean LABORAL KUTXAK dituen eskubideak, nahiz eta LABORAL KUTXAREN atxikimendua edo aldeko botoa izan, edukia edozein delarik ere (kitak eta itxarroteak barne). Konkurtsupean ez dauden obligaziodunek eta fidatzaileek onartu egin dute, berariaz, atxikimendu edo aldeko boto hori, eta ezingo dituzte argudiatu ez hitzarmenaren onespena ez horren eraginak, LABORAL KUTXAREN kaltetan.

FIDATZAILEEK edo benetako berme-eskubideak eratu dituen orok, ezin izango dute ordainketako auzibidetik kanpoko edo birfinantzaketa-akordioen onarpenean oinarritutako argudiorik eman LABORAL KUTXAREN kaltetan, nahiz eta LABORAL KUTXAREN beraren atxikimendua edo aldeko botoa izan eta haren edukia edozein izanik ere, kitatzeak eta/edo itxaronaldiak barne.

FIDATZAILEEK baimena ematen diote LABORAL KUTXARI, espresuki eta era ezeztazinean, erakunde horretan (kontu korrontean, aurrezki-libretan nahiz bestelako edozein modalitatetan) aipaturiko FIDATZAILEEN izenean dauden kopuruetatik mailegu honetan mugaeguneraturiko eta ordaindu gabeko zenbatekoak atxikitze eta konpentsatzeko, gorabehera hori gertatzen bada.

FIDATZAILEEK LABORAL KUTXAREN edozein bulegotan ordaindu beharko dituzte bermatutako betebeharrak, erakunde horrek lehen eskaera egiten dien unean bertan, ordainketa-eskaera egokia edo desegokia den aztertzen hasi gabe.

Berme hau bateragarria da hemen zati batean fidantzatzen den maileguaren betebeharrak ordaintzeko LABORAL KUTXAK MAILEGU HARTZAILEARI zein hirugarren pertsonari onartu dizkien edo etorkizunean onar diezazkiekeen gainerako bermekin. LABORAL KUTXAK berme honetatik sortzen diren eskubideak eta legearen arabera dagozkion gainerakoak bereizi gabe, txandaka zein aldi berean erabili ahal izango ditu.

Eragiketaren muga-egun normala edo aurreratua gertatu ondoren, eta LABORAL KUTXAK FIDATZAILEEN aurka egitea erabakitzen badu, FIDATZAILEEK adierazten dute errekerimendua edo jakinarazpenak helarazteko helbidea agerraldian adierazitako helbidea bera dela.

LABORAL KUTXAK ez du FIDATZAILEARI/EI ohartarazpenik bidaltzeko betebeharrak izango, zordunek edo gainerako FIDATZAILEEK ordaintzeko betebeharrak huts egiten badute.

Hemen aurkezten den fidantza emendua indarrean iraungo du harik eta berak bermatzen dituen betebeharrak guztiak, kontratu honetan jasota daudenak edota kontratua berritzeko edo ordeztzeko kontratuetan jasoko direnak, guztiz amaitu arte.

Halere, eta lehen ezarritakoa gorabehera, MAILEGU HARTZAILEAK tronkoa eta interesak ordaintzeko betebeharrak kontratu honetan adostutako egunetan betetzen baditu, eta, hartara, eragiketaren lehen urteetan maileguan soberakinak sortzen ez bada, erakunde hartzekodunak konpromisoa hartzen du fidatzaileak beraien bermeetatik askatzeko, lehen adierazitako epea iragan ondoren horiek eskatuaz bat. Aipaturiko epea igarotzeak ez du esan nahi fidatzailea besterik gabe bere betebeharretatik libre geldituko denik. Baldintzak bete eta erakunde hartzekodunak berariaz adierazi beharko du, fidatzaileei zuzendutako eskutitzez edo burofax bidez.

C AUKERA: ZENBATEKO PARTZIALEKO FIDANTZA SOLIDARIOA

Kontratu honetan finkatu den hipoteka-bermeaz gain, eta hura gorabehera, FIDATZAILEEK LABORAL KUTXARI bermatzen diote, pertsonalki eta alderdi MAILEGU HARTZAILEAREKIN era solidarioan, eta elkarren artean era solidarioan, mailegu-kontratu honen arabera MAILEGU HARTZAILEAK bereganatu dituen betebeharrak guztiak bete egingo direla, baina kopuruan muga bat ezarrita. Zehazki, MAILEGU HARTZAILEAK LABORAL KUTXARI aipaturiko maileguaren tronkoagatik, interes arruntengatik eta berandutze interesengatik, komisioengatik eta kostuengatik ordaindu behar dion zenbateko osoaren % ... ordaindu beharko du, gehienez, FIDATZAILEAK. LABORAL KUTXAREN ordezkariak fidantza hori onartzen du.

Fidantza izaera SOLIDARIOA izango du eta, hartara, FIDATZAILEEK berariaz uko egiten diete ordena-, eskusio- eta banaketa-onurei.

Uko egite horrek zera dakar: hasiera batean beren izaerari dagozkion onurak galduko dituztela FIDATZAILEEK. Gauzak horrela, alderdi MAILEGU HARTZAILEAK bere betebeharrak betetzen ez baditu, uko egiten diote lehenengo zordun nagusiari eta gero FIDATZAILEEI erreklamatzeari (ordenaren onura); zordun nagusiaren ondasun guztiak gauzatu arte FIDATZAILEEI ezin erreklamatzeari (eskusio-onura); eta, azkenik, FIDATZAILE bat baino gehiago egonez gero, zorra guztien artean banatzeari eta bakoitzari dagokion zatia eskatzeari. Izan ere, azken onura horri uko eginda, zor osoa edota zorraren zati bat FIDATZAILE batzuei eskatzeko eta besteak salbuesteko aukera egongo da, edota beharbada guztiak ez zaie zorraren zati berdina exijituko (banaketa-onura).

Hemendik aurrera eta ondorio guztietarako, FIDATZAILEEK onartu egiten dituzte LABORAL KUTXAREN eta alderdi MAILEGU HARTZAILEAREN artean adostuta, etorkizunean LABORAL KUTXAK alderdi mailegu-hartzaileari aitortu diezazkiekeen luzamendu eta ordainketa-erraztasun guztiak, bai eta, oro har, tresna honetan formalizatutako eragiketaren gainean bi alderdiok hitzartu ditzaketan gainerako baldintza guztiak ere, betiere maileguaren zenbatekoa edo interes-tasak (arruntak nahiz berandutzeagatikoak) eta komisioak handitzea ez badakarte, edota maileguaren azken muga-eguna aldatzea ez badakarte.

Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA, fidatzaileetako bat edo bermetarako eskubide erreala eratu dituen hartzekodunen konkurtsuan badago, hartzekodunen hitzarmena onesteak ez ditu mugatuko konkurtsupean ez dauden obligaziodunen eta fidatzaileen aurrean LABORAL KUTXAK dituen eskubideak, nahiz eta LABORAL KUTXAREN atxikimendua edo aldeko botoa izan, edukia edozein delarik ere (kitak eta itxarroteak barne). Konkurtsupean ez dauden obligaziodunek eta fidatzaileek onartu egin dute, berariaz, atxikimendu edo aldeko boto hori, eta ezingo dituzte argudiatu ez hitzarmenaren onespena ez horren eraginak, LABORAL KUTXAREN kaltetan.

FIDATZAILEEK edo benetako berme-eskubideak eratu dituen orok, ezin izango dute ordainketako auzibidetik kanpoko edo birfinantzaketa-akordioen onarpenean oinarritutako argudiorik eman LABORAL KUTXAREN kaltetan, nahiz eta LABORAL KUTXAREN beraren atxikimendua edo aldeko botoa izan eta haren edukia edozein izanik ere, kitatzeak eta/edo itxaronaldiak barne.

FIDATZAILEek baimena ematen diote LABORAL KUTXAri, espresuki eta era ezeztazinean, erakunde horretan (kontu korrontean, aurrezki-libretan nahiz bestelako edozein modalitatetan) aipaturiko FIDATZAILEen izenean dauden kopuruetatik mailegu honetan mugaeguneraturiko eta ordaindu gabeko zenbatekoak atxikitzeko eta konpentsatzeko, gorabehera hori gertatzen bada.

FIDATZAILEEK LABORAL KUTXAren edozein bulegotan ordaindu beharko dituzte bermatutako betebeharrak, erakunde horrek lehen eskaera egiten dien unean bertan, ordainketa-eskaera egokia edo desegokia den aztertzen hasi gabe.

Berme hau bateragarria da hemen zati batean fidantzatzan den maileguaren betebeharrak ordaintzeko LABORAL KUTXAK MAILEGU HARTZAILEari zein hirugarren pertsonari onartu dizkien edo etorkizunean onar diezazkiekeen gainerako bermeekin. LABORAL KUTXAK berme honetatik sortzen diren eskubideak eta legearen arabera dagozkion gainerakoak bereizi gabe, txandaka zein aldi berean erabili ahal izango ditu.

Eragiketaren muga-egun normala edo aurreratua gertatu ondoren, eta LABORAL KUTXAK FIDATZAILEen aurka egitea erabakitzen badu, FIDATZAILEek adierazten dute errekerimendua edo jakinarazpenak helarazteko helbidea agerraldian adierazitako helbidea bera dela.

LABORAL KUTXAK ez du FIDATZAILEARI/EI ohartarazpenik bidaltzeko betebeharrak izango, zordunek edo gainerako FIDATZAILEek ordaintzeko betebeharran huts egiten badute.

Hemen aurkezten den fidantzamenduak indarrean iraungo du harik eta berak bermatzen dituen betebeharrak guztiak, kontratu honetan jasota daudenak edota kontratua berritzeko edo ordeztzeko kontratuetan jasoko direnak, guztiz amaitu arte.

D AUKERA: HIPOTEKATZAILEAK ERATUTAKO FIDANTZA

Kontratu honetan finkatu den hipoteka-bermeaz gain eta hari kalterik eragin gabe, FIDATZAILEEK LABORAL KUTXAri bermatzen diote, pertsonalki eta alderdi MAILEGU HARTZAILEAREKIN era solidarioan, eta elkarren artean era solidarioan, mailegu-kontratu honen arabera MAILEGU HARTZAILEAK bereganatu dituen betebeharrak guztiak bete egingo direla. Izaera solidario horren ondorioz, gainera, berariaz uko egiten diete ordena-, eskusio- eta banaketa-onurei.

Uko egite horrek zera dakar: hasiera batean beren izaerari dagozkion onurak galduko dituztela FIDATZAILEEK. Gauzak horrela, alderdi MAILEGU HARTZAILEAK bere betebeharrak betetzen ez baditu, uko egiten diote lehenengo zordun nagusiarri eta gero FIDATZAILEEI erreklamatzeari (ordenaren onura); zordun nagusiaren ondasun guztiak gauzatu arte FIDATZAILEEI ezin erreklamatzeari (eskusio-onura); eta, azkenik, FIDATZAILE bat baino gehiago egonez gero, zorra guztien artean banatzeari eta bakoitzari dagokion zatia eskatzeari. Izan ere, azken onura horri uko eginda, zor osoa edota zorraren zati bat FIDATZAILE batzuei eskatzeko eta besteak salbuesteko aukera egongo da, edota beharbada guztiei ez zaie zorraren zati berdina exijituko (banaketa-onura).

Hemendik aurrera eta ondorio guztietarako, FIDATZAILEEK onartu egiten dituzte LABORAL KUTXAren eta alderdi MAILEGU HARTZAILEaren artean adostuta, etorkizunean LABORAL KUTXAK alderdi mailegu-hartzaileari aitortu diezazkiekeen luzamendu eta ordainketa-erraztasun guztiak, bai eta, oro har, tresna honetan formalizatuko den eragiketaren gainean bi alderdiok hitzartu ditzaketen gainerako baldintza guztiak ere, betiere maileguaren zenbatekoa edo interes-tasak (arruntak nahiz berandutzeagatikoak) eta komisioak handitzea ez badakarte, edota maileguaren azken muga-eguna aldatzea ez badakarte.

Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA, fidatzaileetako bat edo bermetarako eskubide errealeak eratu dituen hartzekodunen konkurtsoan badago, hartzekodunen hitzarmena onesteak ez ditu mugatuko konkurtsopean ez dauden obligaziodunen eta fidatzaileen aurrean LABORAL KUTXAK dituen eskubideak, nahiz eta LABORAL KUTXAren atxikimendua edo aldeko botoa izan, edukia edozein delarik ere (kitak eta itxarroteak barne). Konkurtsopean ez dauden obligaziodunek eta fidatzaileek onartu egin dute, berariaz, atxikimendu edo aldeko boto hori, eta ezingo dituzte argudiatu ez hitzarmenaren onespina ez horren eraginak, LABORAL KUTXAren kaltetan.

FIDATZAILEEK edo benetako berme-eskubideak eratu dituen orok, ezin izango dute ordainketako auzibidetik kanpoko edo birfinantzaketa-akordioen onarpenean oinarritutako argudiorik eman LABORAL KUTXAren kaltetan, nahiz eta LABORAL KUTXAren beraren atxikimendua edo aldeko botoa izan eta haren edukia edozein izanik ere, kitatzeak eta/edo itxaronaldiak barne.

FIDATZAILEek baimena ematen diote LABORAL KUTXAri, espresuki eta era ezeztazinean, erakunde horretan (kontu korrontean, aurrezki-libretan nahiz bestelako edozein modalitatetan) aipaturiko FIDATZAILEen izenean dauden kopuruetatik mailegu honetan mugaeguneraturiko eta ordaindu gabeko zenbatekoak atxikitzeko eta konpentsatzeko, gorabehera hori gertatzen bada.

FIDATZAILEEK LABORAL KUTXAren edozein bulegotan ordaindu beharko dituzte bermatutako betebeharrak, erakunde horrek lehen eskaera egiten dien unean bertan, ordainketa-eskaera egokia edo desegokia den aztertzen hasi gabe.

Eragiketaren muga-egun normala edo aurreratua gertatu ondoren, eta LABORAL KUTXAK fidatzaileen aurka egitea erabakitzen badu, fidatzaileek adierazten dute errekerimendua edo jakinarazpenak helarazteko helbidea agerraldian adierazitako helbidea bera dela.

LABORAL KUTXAK ez du FIDATZAILEARI/EI ohartarazpenik bidaltzeko betebeharrak izango, zordunek edo gainerako FIDATZAILEek ordaintzeko betebeharran huts egiten badute.

Hemen aurkezten den fidantzamenduak indarrean iraungo du harik eta berak bermatzen dituen betebeharrak guztiak, kontratu honetan jasota daudenak edota kontratua berritzeko edo ordeztzeko kontratuetan jasoko direnak, guztiz amaitu arte.

ZORTZI: ZOR LIKIDOAREN ZEHAZTAPENA

Prozesu-eraginetarako, parte-hartzaileek hauxe hitzartu dute espresuki: exekuzio-kasuan exijitu ahal izango den kopurua agiri honetan aldeek hitzartu duten eran erakunde hartzekodunak egindako likidazioaren emaitza izango dela.

BEDERATZI: HIPOTEKA**A AUKERA: KLAUSULA OROKORRA****A.1. AUKERA. INTERES TASA ARRUNT ALDAKORREKO MAILEGUETAN**

Zordunaren betebeharrak pertsonala izango da mailegu-kontratu hau betetzea eta mailegatutako kapital osoa itzultzea, hau da, EURO; hirugarrenen kalterako bi urteko ordainketa-interesak ordaintzea, urteko ehuneko-(e)ko gehieneko tasan; berandutze-interesengatik EURO ordaintzea, urteko ehuneko eko gehieneko interes-tasan bi urteko hipoteka-helburuetarako, baita EURO ere kostuetarako; horrez gain,(e)k eta(e)k LABORAL Kutxaren aldeko lehen hipoteka egin du (dute), berariazkoa, berezia eta borondatezkoa, eskritura honen I. azalpenean aipatutako finkaren (finken) gainean, ***finka hori (horiek) ohiko etxebizitza delarik (direlarik) (AIPAMEN HORI OHIKO ETXEBIZITZA BADA ERANTSI BEHAR DA; BESTELA, KENDU)***, eta Entitateak onartu egin du (ditu), egintza honetan duen ordezkariaren bitartez.

A.2. AUKERA. INTERES TASA ARRUNT FINKORAKO MAILEGUETAN

Zordunaren betebeharrak pertsonala izango da mailegu-kontratu hau betetzea eta mailegatutako kapital osoa itzultzea, hau da, EURO; hirugarrenen kalterako bi urteko ordainketa-interesak ordaintzea, urteko ehuneko-(e)ko gehieneko tasan; berandutze-interesengatik EURO ordaintzea, urteko ehuneko(e)ko gehieneko interes-tasan bi urteko hipoteka-helburuetarako, baita EURO ere kostuetarako; horrez gain,(e)k eta(e)k LABORAL Kutxaren aldeko lehen hipoteka egin du (dute), berariazkoa, berezia eta borondatezkoa, eskritura honen I. azalpenean aipatutako finkaren (finken) gainean, ***finka hori (horiek) ohiko etxebizitza delarik (direlarik) (AIPAMEN HORI OHIKO ETXEBIZITZA BADA ERANTSI BEHAR DA; BESTELA, KENDU)***, eta Entitateak onartu egin du (ditu), egintza honetan duen ordezkariaren bitartez.

(BEHARRA EGON ESKERO) BEDERATZI-BIS: AIPATUTAKO HIPOTEKA- BERME MAILEGUAREN HIPOTEKA- ERANTZUKIZUNEN BANAKETA

Hipoteka-bermea alde aurretik deskribatutako hainbat finken gainean dago, eta ondoren zehazten da bakoitzari buruzko hipoteca-erantzukizunaren banaketa:

Finka zenbakia:.....
Erantzukizun nagusiaren zenbatekoa:.....€
Ohiko interesak 2 urte %.....(e)raino.
Berandutze-interesa, gehienez ere %.....(e)raino:.....€
Kostuak:.....€

Finka zenbakia:.....
Erantzukizun nagusiaren zenbatekoa:.....€
Ohiko interesak 2 urte %.....(e)raino.
Berandutze-interesa, gehienez ere %.....(e)raino:.....€
Kostuak:.....€

HAMAR: HIPOTEKAREN HEDADURA

Eratutako hipotekak honako hauei eragiten die: Hipoteka Legearen 109. eta 110. artikuluetan aipatzen direnei; lege horren beraren 111. artikuluen 1, 2 eta 3 atalei; hipotekaturiko finkan egiten diren hobekuntza, obra eta eraikuntzei, baita eraikuntza berriko obrei ere; eta iraunkorki barne hartzen dituen ondasun higigarriei, hirugarren edukizaille batek ordaindu dituenean izan ezik, Hipoteka Legearen 112. Artikuluak xedatutakoaren arabera.

Eskritura honetan eratu den hipoteka-bermearen eraginei eusteko asmoz, parte-hartzaileek hau erabaki dute: kontratu honetan hamabigarren hizpaketan agertzen diren prozedura judizialekoren baten edo hamahirugarren hizpaketako judizioz kanpoko salmentaren eraginez hipoteka exekutatu egiten bada, indarrrik gabe geratuko direla, automatikoki, hemen hipotekatu den finkaren gaineko errentamenduak, baldin eta eskritura hau baino geroago eratu badira. Dena den, Prozedura Zibilaren Legearen 661. artikuluen bigarren paragrafoan eta 675. artikuluan azaltzen den prozedura erabiltzeko aukera egongo da.

HAMAIIKA: FINKA ZAINTEKO BETEBEHARRA

Zorduna edo hipotekatzailea behartuta dago hipotekatutako finka arduraren osoz zaintzera, eta, horretarako, beharrezkoak diren konponketak egingo ditu. Dena den, finkaren balioa gutxitu dezakeen edozein aldaketa egin baino lehen, kooperatiba hartzekodunari jakinarazi beharko dio.

HAMABI: ERREKLAMATZEKO PROZEDURA JUDIZIALAK**A) AUKERA: KLAUSULA OROKORRA**

A.1. FINKA BAKARRAK HIPOTEKATZEN BADA

Betebehar nagusia edozein arrazoiengatik mugaeguneratu eta ordaindu gabe gelditzen bada, kooperatiba hartzekodunak honako prozedura hauek erabili ahal izango ditu:

- a) Prozedura Zibilaren Legearen 571. artikuluan eta hurrengoetan diru-exekuziorako aurreikusten den prozedura.
- b) Prozedura Zibilaren Legearen 681. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten den prozedura, berme eta hipoteka bidez ziurtatu diren zorren ordainketa exijitzeko.

Bi prozeduretako edozein erabilita ere, hipotekatutako finka EUROan **AGERTU BEHARREKO ZENBATEKOA EZIN DA IZAN TASAZIO BALJOAREN % 100 BAINO TXIKIAGOA** tasatu dute interesatuek, bidezko ondorioetarako, eta eskritura honetan agertzen dena eman dute beharrezko jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidetzat.

Kooperatiba hartzekoduna ahalmenduta dago, auzibidezko erreklamazioetan hipotekatutako finkaren administrazioa eta behin-behineko jabetza izateko. Halaber, epea amaitu ondoren ordaindu ez diren errentak eta mugaeguneratuz doazenak kobratzeko ahalmena izango du, eta zaintza-gastuak eta kreditua ordaintzeko erabiliko dira.

Kontratu honetako jakinarazpen, errekerimendu eta komunikazioetarako, alderdi MAILEGU-HARTZAILEaren eta FIDATZAILEn helbidea agiri honetan agertzen dena izango da, baldin eta bizileku-aldaketaren jakinarazpen fede-emailerik ez badago.

Partaideek espresuki hitzartu dute zuzenbidean onartutako edozein komunikabide erabili ahal izango dela jakinarazpenak igorri eta jaso direla ziurtatzeko. Berariaz baliozkotzat jo da alderdi KREDITU-HARTZAILEaren edo FIDATZAILEn (baldin badaude) etxera burofaxa bidaltzea. Burofaxaren igorpen-ordetzakigiriak izango dira jakinarazpenaren froga fede-emaileak.

A.2. FINKA BAT BAINO GEHIAGO HIPOTEKATZEN BADIRA

Betebehar nagusia edozein arrazoiengatik mugaeguneratu eta ordaindu gabe gelditzen bada, kooperatiba hartzekodunak honako prozedura hauek erabili ahal izango ditu:

- a) Prozedura Zibilaren Legearen 571. artikuluan eta hurrengoetan diru-exekuziorako aurreikusten den prozedura.
- b) Prozedura Zibilaren Legearen 681. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten den prozedura, berme eta hipoteka bidez ziurtatu diren zorren ordainketa exijitzeko.

Bi prozeduretako edozein erabilita ere hipotekatutako finka/k ondorengo kantitatean tasatu dute/dituzte interesatuek:

Finka zenbakia: XXXXXXXXXXXX
Erregistro kode bakarra: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
Tasazio kantitatea: XXX.XXX,XX €

Finka zenbakia: XXXXXXXXXXXX
Erregistro kode bakarra: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
Tasazio kantitatea: XXX.XXX,XX €

Bidezko ondorioetarako, eta eskritura honetan agertzen dena eman dute beharrezko jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidetzat.

Kooperatiba hartzekoduna ahalmenduta dago, auzibidezko erreklamazioetan hipotekatutako finkaren administrazioa eta behin-behineko jabetza izateko. Halaber, epea amaitu ondoren ordaindu ez diren errentak eta mugaeguneratuz doazenak kobratzeko ahalmena izango du, eta zaintza-gastuak eta kreditua ordaintzeko erabiliko dira.

Kontratu honetako jakinarazpen, errekerimendu eta komunikazioetarako, alderdi MAILEGU-HARTZAILEaren eta FIDATZAILEn helbidea agiri honetan agertzen dena izango da, baldin eta bizileku-aldaketaren jakinarazpen fede-emailerik ez badago.

Partaideek espresuki hitzartu dute zuzenbidean onartutako edozein komunikabide erabili ahal izango dela jakinarazpenak igorri eta jaso direla ziurtatzeko. Berariaz baliozkotzat jo da alderdi KREDITU-HARTZAILEaren edo FIDATZAILEn (baldin badaude) etxera burofaxa bidaltzea. Burofaxaren igorpen-ordetzakigiriak izango dira jakinarazpenaren froga fede-emaileak.

B) AUKERA: AUTOSUSTAPENARI EDO SUSTAPENARI LOTUTAKO XEDAPEN PARTZIALAK DITUEN MAILEGUARI LOTUTAKO KLAUSULA

B.1. FINKA BAKARRA HIPOTEKATZEN BADA

Betebehar nagusia edozein arrazoiengatik mugaeguneratu eta ordaindu gabe gelditzen bada, kooperatiba hartzekodunak honako prozedura hauek erabili ahal izango ditu:

- a) Prozedura Zibilaren Legearen 571. artikuluan eta hurrengoetan diru-exekuziorako aurreikusten den prozedura.
- b) Prozedura Zibilaren Legearen 681. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten den prozedura, berme eta hipoteka bidez ziurtatu diren zorren ordainketa exijitzeko.

Bi prozeduretako edozein erabilita ere, hipotekatutako finka/k ondorengo kantitatean tasatu dute/dituzte interesatuek:

Finka zenbakia:

Tasazio kantitatea:.....€ (**GAUR EGUNGO EGOERARAKO TASAZIOAREN KOPURUA SARTU**)

Bidezko ondorioetarako, eta eskritura honetan agertzen dena eman dute beharrezko jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidetzat.

Hala ere, eraikina edo, hala badagokio, birgaikuntza-proiektua bukatuak badago, enkantean jartzeko balioa **eurokoa** izango da. Balio horrek honako baldintza etengarri hau izango du: obra amaitu ondoren eta hori hala dela egiaztatzen duen Obra Bukaerako Akta emandakoan, beste tasazio bat egingo da, eta horrek ematen duen balioa ez da eraikinaren azken tasazio-balioaren % 100 baino txikiagoa izango.

Kooperatiba hartzekoduna ahalmen dago, auzibidezko erreklamazioetan hipotekatutako finkaren administrazioa eta behin-behineko jabetza izateko. Halaber, epea amaitu ondoren ordaindu ez diren errentak eta mugaeguneratuz doazenak kobratzeko ahalmena izango du, eta zaintza-gastuak eta kreditua ordaintzeko erabiliko dira.

Kontratu honetako jakinarazpen, errekerimendu eta komunikazioetarako, alderdi MAILEGU-HARTZAILEAren eta FIDATZAILAren helbidea agiri honetan agertzen dena izango da, baldin eta bizileku-aldaketaren jakinarazpen fede-emailerik ez badago.

Partaideek espresuki hitzartu dute zuzenbidean onartutako edozein komunikabide erabili ahal izango dela jakinarazpenak igorri eta jaso direla ziurtatzeko. Berariaz baliozkotzat jo da alderdi KREDITU-HARTZAILEAren edo FIDATZAILAren (baldin badaude) etxera burofaxa bidaltzea. Burofaxaren igorpen-ordezkgiriak izango dira jakinarazpenaren froga fede-emeleak.

B.1. FINKA BAT BAINO GEHIAGO HIPOTEKATZEN BADIRA

Betebehar nagusia edozein arrazoiengatik mugaeguneratu eta ordaindu gabe gelditzen bada, kooperatiba hartzekodunak honako prozedura hauek erabili ahal izango ditu:

- c) Prozedura Zibilaren Legearen 571. artikuluan eta hurrengoetan diru-exekuziorako aurreikusten den prozedura.
- d) Prozedura Zibilaren Legearen 681. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten den prozedura, berme eta hipoteka bidez ziurtatu diren zorren ordainketa exijitzeko.

Bi prozeduretako edozein erabilita ere, hipotekatutako finka/k ondorengo kantitatean tasatu dute/dituzte interesatuek:

Finka zenbakia:

Tasazio kantitatea:.....€ (**GAUR EGUNGO EGOERARAKO TASAZIOAREN KOPURUA SARTU**)

Finka zenbakia:

Tasazio kantitatea:.....€ (**GAUR EGUNGO EGOERARAKO TASAZIOAREN KOPURUA SARTU**)

Bidezko ondorioetarako, eta eskritura honetan agertzen dena eman dute beharrezko jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidetzat.

Hala ere, eraikina edo, hala badagokio, birgaikuntza-proiektua bukatuak badago, enkantean jartzeko balioa **eurokoa** izango da zenbakidun finkarentzat eta eurokoa Zenbakidun finkarentzat. Balio horrek honako baldintza etengarri hau izango du: obra amaitu ondoren eta hori hala dela egiaztatzen duen Obra Bukaerako Akta emandakoan, beste tasazio bat egingo da, eta horrek ematen duen balioa ez da eraikinaren azken tasazio-balioaren % 100 baino txikiagoa izango.

Kooperatiba hartzekoduna ahalmen dago, auzibidezko erreklamazioetan hipotekatutako finkaren administrazioa eta behin-behineko jabetza izateko. Halaber, epea amaitu ondoren ordaindu ez diren errentak eta mugaeguneratuz doazenak kobratzeko ahalmena izango du, eta zaintza-gastuak eta kreditua ordaintzeko erabiliko dira.

Kontratu honetako jakinarazpen, errekerimendu eta komunikazioetarako, alderdi MAILEGU-HARTZAILEAren eta FIDATZAILAren helbidea agiri honetan agertzen dena izango da, baldin eta bizileku-aldaketaren jakinarazpen fede-emailerik ez badago.

Partaideek espresuki hitzartu dute zuzenbidean onartutako edozein komunikabide erabili ahal izango dela jakinarazpenak igorri eta jaso direla ziurtatzeko. Berariaz baliozkotzat jo da alderdi KREDITU-HARTZAILEAren edo FIDATZAILAren (baldin badaude) etxera burofaxa bidaltzea. Burofaxaren igorpen-ordezkgiriak izango dira jakinarazpenaren froga fede-emeleak.

HAMAHIRU: JUDIZIOZ KANPOKO SALMENTA

Kooperatiba hartzekodunak hipotekatutako ondasunekin judizioz kanpoko salmenta egin dezake, ondoko hipotesia kasuetan: eskritura honetan bermatutako kopurua ordaintzeko kapitalik egon ezean eta horren ohiko interesak eta berandutze-interesak baldin badaude, Hipoteka Erregelamenduaren Hipoteka Legearen 129 artikuluan eta bat datozenetan jasotakoaren arabera.

Alderdi hipotekatzailak LABORAL KUTXA izendatu du, bere garaian bere ordezkari finken salmenta-eskritura egilesteko. Horrek edozein ahalordedun erabili ahal izango du, nahiz eta orduan autokontratazioaren figura juridikoa sortu.

Parte-hartzaileek aurreko hizpaketan finkatu den kopuruan tasatu dituzte hipotekatutako finkak, lehen enkantean erabili ahal izateko.

Berariaz adierazten da hipotekatutako etxebizitza hipoteka-hartzailearen: **etxebizitza dela. (Adierazi ohiko etxebizitza den edo ez)**

Hipotekatzaileak eskritura honen sarreran zehaztutako helbidea finkatu du jakinarazpen eta erreklamazioetarako.

Salmenta honek sortzen dituen gastu eta zerga guztiak alderdi hipoteka-hartzaileak ordaindu beharko ditu, baldin eta legez erakunde mailegu-emailari ez badagozkio.

HAMALAU GARRENA: ERREKLAMATZEKO JUDIZIOZ KANPOKO PROZEDURAK

LABORAL KUTXAK Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua jarri du alderdi MAILEGU-HARTZAILEAREN eskura, beraren kexak eta erreklamazioak kudea ditzan. Hauxe da helbidea: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua; HFko 2. posta-kutxa, 20500, Arrasate; e-maila: Servicio.de.Atencion.al.Cliente@CajaLABORAL.es.

Kexa nahiz erreklamazioa idatziz azalduz abia daitezke tramiteak. Horretarako, bulego guztietan, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren erakustaltzarian, eskura dagoen inprimakia edo ereduak erabili ahal izango da, nahi izanez gero.

Era berean, kexa nahiz erreklamazioa Internet bidez helarazteko, Caja LABORAL Neten (<https://www.cajaLABORAL.com>) Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren atalera jo ahal izango du bezeroak, dagozkion erreferentziekin bere burua identifikatu ostean.

Kexak edo erreklamazioak ebazteko bi hilabeteko epea dago gehienez. Hortaz, epe hori iragandakoan kasua konpondu gabe badago edo emandako erantzunarekin edo erabakiarekin ados egon ezean, helbide honetara jo ahal izango du bezeroak: Finantza-zerbitzuetako bezeroaren babeserako komisarioa – Arauketaren eta Gardentasunaren Dibisioa, Alcalá kalea 50, 28014, MADRIL.

HAMABOST GARRENA: ESKRITURA HONEN KOPIAK

Arautegi Notarialeko 234. artikulua eta horrekin bat datozenen arabera eta Prozedura Zibilaren Legearen 517. artikulua 2-4 zenbakiaren eraginetarako, alderdi MAILEGU HARTZAILEAK baimena eman dio espresuki LABORAL KUTXAri, kontratu hau sinatzen den unetik eskritura honen bigarren eta ondorengo kopien igorpena eskatzeko.

Indarrean dauden administrazio-arauei jarraiki, alderdi MAILEGU HARTZAILEAK mailegu-eskritura honen kopia bat jasoko du.

HAMASEI GARRENA: DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Tratamenduaren erantzulea

LABORAL KUTXA

Helbidea: Arrasate (Gipuzkoa), Jose María Arizmendiarieta pasealekua zk.g.

Helbide elektronikoa: protecciondatos@laboralkutxa.com

Harremanetan jartzeko: Datuak babesteko ordezkaria

Tratamenduen helburu nagusiak

Kontratu-harremanaren egikaritzean oinarrituta

- Bezeroaren alta ebaluatu eta izapidetzea, kontratazioak gestionatzea eta kontratatutako produktuak eta zerbitzuak administratzea. Finantzaketa-eskaera baten edo beste arrisku-produktu baten aurrean, kaudimen-gaitasuna eta -egoera aztertzea, besteak beste CIRBE eta kreditu-informazioko sistemak kontsultatuta.
- Komenentzia- eta egokitasun-testa egitea, finantza-tresna bat kontratatzea erabakitzen duzunean eta MiFID araudiak hala eskatzen duenean.
- Zure datuak LABORAL Kutxa Taldeko enpresei jakinaraztea, haien produktu eta/edo zerbitzuren bat kontratatzen duzunean.

Lege-betebehar batean oinarrituta

- Beharrezko gestioak eta egiaztapenak egitea, kapitalak zuritzeari aurrea hartzearen eta merkatu-abusuaren alorreko betebeharrak eta beste edozein lege aplikagarri betetzeko.
- Arrisku-profilak eta -ereduak prestatzea, kaudimena eta finantza-arriskua kontrolatzeko, kapitala kalkulatzeko eta arriskua kudeatzeko faseei dagokienez eragiketa eta bezero bakoitzeko beharrezkoak diren hornidurak egiteko.
- Datuak komunikatzea agintari publikoei, erregulatuzaileei edota gobernu- edo jurisdikzio-organoei, araudiak hala eskatzen duenean.
- Ordainketak hasteko zerbitzuen edo kontuei buruzko informazioaren hornitzaileak eskatutako ordainketa-kontuekin lotutako datu pertsonaletarako sarbidea ematea, zerbitzu horiek kontratatu badituzu.
- Finantza-produktu baten telefono bidezko kontratazioan ahots-grabazioak egitea eta gordetzea, baita bideoak ere, segurtasun-xedearekin.

Laboral Kutxaren interes legitimoan oinarrituta

- Ordainketa, kreditu edo finantzaketa bat ez bada adostutako moduan ordaintzen, datuak kreditu-informazioko sistemari lagatzea (ASNEF eta BADEXCUG fitxategiei), legez aurreikusitako baldintzak betez.
- Kontratutako produktuei eta/edo zerbitzuei buruzko gogobetetze-inkestak egitea.
- Zurekin harremanetan jartzeko datuak erabiltzea, LABORAL Kutxarekin kontratatuta dituzunen antzeko produktuei eta zerbitzuei buruzko jakinarazpenak bidaltzeko, edozein bitarteko erabilita.
- Bezeroen profilak sortzea, dagoeneko kontratatuta dituztenen antzeko produktu eta zerbitzuei buruzko jakinarazpen komertzialak zein bezero-talderi bidaliko zaizkion zehazteko.
- Datuak tratatzea eta/edo LABORAL Kutxa Taldeko enpresei eta Iberpay fitxategiari jakinaraztea, iruzurra saihesteko, ikertzeko eta/edo agerian jartzeko. Gainera, jokabide-eredu bat sortuko dugu Online Bankan eta aplikazio mugikorrean nabigatzeko duzun moduari erreparatuta, iruzurrezko erabilerak hautemateko.
- Ahotsa eta/edo irudia grabatzea, zerbitzuaren kalitateari eusteko eta, beharrezkoa izanez gero, grabazioak proba gisa erabiltzeko epaiketan eta epaiketatik kanpo.
- Zure sinadura digitalizatua jasotzea, sinadura elektronikoko gailuen bidez.
- Zure datuak eta beste bezero batzuenak elkartzea, entitatearen eta bere langileen eta agenteen jardunaren jarraipena egiteko.
- Datuak anonimotzea, produktuen eta zerbitzuen erabilera-ereduak aztertzeke.

Baimen esplizituan oinarrituta

- Profilak prestatzean eskura dauden zure datu pertsonal guztiak konbinatzea, zer produkturi eta zerbitzuri buruzko publizitatea bidaliko dizugun zehazteko.
- Zure harremanetarako datuak erabiltzea, LABORAL Kutxa Taldeko enpresek edo beste enpresa laguntzaile batzuek kontratatuta dituzunen antzekoak ez diren produktuei edo zerbitzuei buruzko jakinarazpen komertzialak eta/edo publizitate-jakinazpenak bidaltzeko, edozein bitarteko erabilita eta zuk alde zurretik eskatu gabe.
- Zure datu pertsonalak LABORAL Kutxa Taldeko enpresei lagatzea, profilak egiteko informazio gehiago izan dezaten eta beren produktuei edo zerbitzuei buruzko jakinarazpen komertzialak bidaltzeko.
- Zure geolokalizazioa ezagutzea, hori behar duten zerbitzuak emateko.

Datuen hartzaileak:

- Agintari publikoak, gainbegirataileak, erregulataileak edota gobernu- edo jurisdikzio-organoak, legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa denean, direla bertakoak direla beste herrialde batzuetakoak (EBkoak zein kanpokoak).
- Espainiako Bankuko Arriskuen Informazio Zentrala (CIRBE), Finantza Titulartasunen Fitxategia eta kreditu-informazioko sistemak (Asnef-Equifax, Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito SL eta Experian Bureau de Crédito SA).
- Iruzurri aurrea hartzeko Iberpayko fitxategiak.
- LABORAL Kutxa Taldeko sozietateak, baimena eman baduzu.
- LABORAL Kutxako finantza-batzailearen bidez izendatzen dituzun entitateak.
- Kontratuaren edo ahalordetzearen baldintzen arabera kontuetan esku hartzen duten baimenduak, ordezkariak, ahalordedunak eta bestelako figura legalak.
- LABORAL Kutxa zerbitzuez hornitzen duten enpresak, eskusiboki zerbitzu horiek emateko.

Datuak babesteko eskubideak:

Eskubidea duzu emandako baimena atzera botatzeko eta datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeke, datuen tratamendua mugatzeko eta eragozteke, datuak eramateko eta erabaki automatizatuen xede ez izateko, «Informazio gehigarria» atalean xehatzen denez.

Informazio gehigarria:

Helbide honetan kontsulta daiteke LABORAL Kutxako bezeroentzako Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Politikari buruzko informazio gehigarri xehatua: www.laboralkutxa.eus

Era berean, esanbidez jakinarazten da Laboral Kutxak zuk emandako hirugarrenen datuak tratatu ahal izango dituela, baldin eta horiek tratatzea beharrezkoa bada kontratua gauzatzeko.

HAMAZAZPIGARRENA: BEREN LANBIDE EDO ENPRESA JARDUERAREN ESPARRUAN DIHARDUTEN BEZEROEI APLIKAGARRI ZAIZKIEN ARAUAK

Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularren bigarren arauak jasotakoaren arabera, bezeroak bere lanbide - edo enpresa - jardueraren esparruan diharduenean, Zirkular horretan ezarritakoa ez zaio aplikagarri izango, hamahirugarrenetik hamabosgarrenera bitarteko arauetan ezarritakoa izan ezik.